udako kanpaina

# UDAN ASTIALDIA ASTINDU!

astialdi foroa

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi



## Zer da astialdiko udako kanpaina?

10.000 plaza baino gehiago kanpalekuetan, udalekuetan, auzolandegietan, elkartrukeetan, udaleku irekietan eta bestelako ekintzetan. Guztia, **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako boluntario gazteek** osatutako 80 astialdi-talde baino gehiagok antolatuta.

## Nork parte har dezake?

Umeek, gazteek… eta ez hain gazteek.
Ekintza batzuetan urte osoan zehar astialdi talde horietan parte hartzen duten pertsonek baino ezin dute izena eman, eta beste askotan edonor apuntatu daiteke. Proposamenetako asko inklusiboak dira eta **edozeinek parte hartu dezake,** bere ezaugarri funtzional edo intelektualak edonolakoak direla ere.

## Zer ekintza mota duzu aukeratzeko?

- **Kanpalekuak**, udaleku irekiak, auzolandegiak, udaleku ibiltariak, elkartrukeak…
- **Euskaraz** eta gazteleraz.
- **Euskal Herrian eta estatuko** zein munduko beste bazter batzuetan.

## Zer berezitasun dute udako ekintza hauek?

Jarduera hauek bereziak dira...

- … balio erantsia dutelako: **borondatez** lan egiten dugun boluntario gazteok antolatzen ditugu, ziur gaude astialdia pertsonak **hezteko** eta gure gizartea hobetzeko tresna dela. **Astialdi hezitzailea**ren bitartez balioak transmititu nahi ditugu, hala nola **parte-hartzea**ren eta gizarte-eraldaketaren balioa, tolerantzia, bakea, aukera berdintasuna, hezkidetza, **euskal kultura**ren ezagutza eta sustapena, kulturartekotasuna, elkartasuna eta sormena.
- …icebergaren tontorra baino ez dira: gure **astialdi taldeak** ez dira udako kontua bakarrik. **Urte osoan zehar** jarduerak antolatzen ditugu eta gure auzo eta herrietan inplikatzen gara. Jarduera hauek guztiak kalitatez eta guk nahi bezala burutu ahal izateko, gure Astialdiko eskoletan jasotzen dugu formakuntza.

Astialdia guretzako jolasteaz gain, gauza gehiago ere bada, **kalitatezko hezkuntza** eskaintzen dugu eta gizartea eraldatzeko lan egiten dugu!

## Begirale boluntarioa izan nahi duzu?

Jar zaitez harremanetan udako ekintzen gidan aurkituko dituzun astialdi-taldeekin.

## Nola eman dezakezu izena?

**Euskadiko Gazteriaren Kontseilua**ren baitan astialdi-esparruko federazio eta eskolak biltzen gaituen **Astialdi Foro**tik gida bat argitaratzen dugu urtero **udako ekintzak** iragartzeko.

Edozein lurraldeko astialdi taldeek antolatutako ekintza aukeratu dezakezu, ez bakarrik zurelurraldeko talde batek eskainitako jarduerak. Dena den, hobe izaten da zure inguruko bat aukeratzea, ondoren nahi izanez gero ikasturtean zehar ere talde horretan parte hartu ahal izateko.

Sar zaitez **www.astialdiforoa.org edo www.egk.org** webgunean udako eskaintzaren gida eskuratzeko. Ondoren, jar zaitez harremanetan aukeratu duzun ekintza antolatzen duen taldearekin.



## Zalantza edo proposamenik?

944436143

astialdiforoa@egk.org

www.astialdiforoa.org

Gida hau argitaratzeko diru-laguntza eman dute:

Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco
Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia
gazteria juventud – Arabako Foru Aldundia – Diputación Foral de Álava
Gipuzkoako Foru Aldundia
gaztebizz

campaña de verano

EN VERANO ¡DESPIERTA TU TIEMPO LIBRE!



astialdi foroa

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Consejo de la Juventud de Euskadi

## ¿Qué es la campaña de verano de tiempo libre educativo?

Consiste en más de 10.000 plazas en campamentos, colonias, campos de trabajo, intercambios, colonias abiertas y otras actividades organizadas por más de 80 grupos de tiempo libre educativo formados por **jóvenes voluntarias y voluntarios de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.**

## ¿Quién puede apuntarse?

Niñ@s, jóvenes… y no tan jóvenes.

Algunas de las actividades están dirigidas solamente a quienes participan en los grupos durante todo el año y otras están abiertas a todo el mundo. Además, muchas de las propuestas son inclusivas y están preparadas para acoger a **cualquier persona**, independientemente de sus características funcionales e intelectuales.

## ¿Qué actividades tienes para elegir?

- **Campamentos**, colonias abiertas, campos de trabajo, colonias itinerantes, intercambios…
- **En euskera** y en castellano.
- En **Euskal Herria**, en otros rincones del **estado** y en otras puntas del planeta.

## ¿Qué tienen de especial estas propuestas de verano?

Todas estas actividades son especiales porque…

- …tienen un plus social: las organizamos jóvenes que hacemos esta labor de forma **voluntaria** porque creemos en el tiempo libre como forma de **educarnos** y crecer como sociedad. Estamos convencidas y convencidos de que a través del **tiempo libre educativo** podemos transmitir valores como la **participación**, la transformación social, la tolerancia, la paz, la igualdad de oportunidades, la coeducación, el conocimiento y el fomento de la **cultura vasca**, la interculturalidad, la solidaridad y la creatividad.
- …son sólo la punta del iceberg: nuestros **grupos de tiempo libre** no son sólo para el verano. Nos implicamos en nuestros barrios, pueblos y ciudades **durante todo el año** realizando un montón de actividades. Para llevar a cabo todas estas actividades a nuestra manera, obtenemos una formación de calidad en nuestras escuelas de tiempo libre.

Para nosotros el tiempo libre educativo es mucho más que pasarlo bien, **educamos con calidad**, educamos para transformar!

## ¿Te gustaría ser monitor/a voluntario/a?

Ponte en contacto con los grupos de tiempo libre educativo que encontrarás en la guía.

## ¿Cómo puedes apuntarte?

Desde **Astialdi Foroa**, la coordinadora del Consejo de la Juventud de Euskadi en la que nos reunimos las escuelas y federaciones de ocio educativo del **Consejo de la Juventud de Euskadi**, publicamos todos los años la **lista de actividades de verano** de los grupos de tiempo libre.

No tienes por qué apuntarte a una actividad organizada por un grupo de tu territorio, sino que puedes elegir cualquiera. Eso sí, lo mejor es elegir al grupo de tu barrio o pueblo para así, si tienes ganas, poder participar después durante todo el año.

Entra en la web **www.astialdiforoa.org** o en **www.egk.org** y encontrarás la guía completa con información sobre todas las actividades. Después, contacta con el grupo que organice la actividad que hayas elegido.



## Tienes dudas o propuestas?

astialdiforoa@egk.org www.astialdiforoa.org

94 443 61 43

**Guía editada con la ayuda económica de:**

Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco

Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia

gazteria juventud – Arabako Foru Aldundia – Diputación Foral de Álava

Gipuzkoako Foru Aldundia

gazte bizz